ASTEKO GAIA: 2001EKO UDAL AURREKONTUAK

# Arrasate PRESS

2001.eko urtarrilaren 26a
528. zenb.



## Sagardo, makailu eta txuleta garaia


HAURTZAINDEGIA
ZERO urtetik
9.300 pzta. hilean
HAUR hezkuntza
LEHEN hezkuntza
D. B. H.
D eredua
943 79 27 73
la merced
IKASTETXEA

# urteurrenak

## Drogomenpekotasun bulegoa

■ **49. zenb.**

*(1990-1-26)*

Arrasateko Udalak drogamenpekotasunaren inguruan lan egiteko bulegoa sortzen hasi zen. Zerbitzu hori Deunoro Oterok hartu zuen bere gain eta urtarrilaren 29an hasi ziren lanean, San Andresen, hainbat hitzaldirekin.

## Lagun Aro-Fagor

■ **49. zenb.**

*(1990-1-26)*



16 txirrindularik osatu zuten 1990ean Lagun Aro-Fagor txirrindulari taldea. 16 milioiko aurrekontuarekin, urtarrilaren 13an aurkeztu zen taldea. Tartean Jon Odriozola oñatiarra zegoen. Jabier Garciaren taldeak 3. denboraldia hasi zuen afizionatuetan.

## Pinpo kalean

■ **49. zenb.**

*(1990-1-26)*



Agustin Bergaretxe 'Pinpo' askatu zuten urtarrilaren 17an. Frantziako Lannemezan-eko espetxean egon zen. 1985eko otsailean atxilotu zuten eta askatu zutenean 15 mondragoetar joan zitzaion bila.

## ATB 23. kanalean

■ **49. zenb.**

*(1990-1-26)*

Arrasate Telebistak Berriak albistegiko aurkezlea aurkeztu zuen aste horretako ARRASATE PRESSEN: Koldo Rodriguez, hain zuzen. Koldo gasteiztarrak San Viator ikastolan eskolak ematen zituen orduan. ATB 23. kanalean hasi zen emititzen.

# besteek esana

« *Eroski, behiaren kaka*: hori da Internet bidez orain dela hilabete batzuk zabaltzen ari den mezua. Mondragon Taldeko produktuen aurkako kanpaina anonimoa da, enplegu nazionalaren hirugarren sortzailea dena (Telefonicaren eta El Corte Inglesen atzetik). Holding hori (Txinan, Marokon, Frantzian eta beste herrialde batzuetara zabaldu dena) euskal abertzaletasun erradikalenaren gailua da. Antonio Cancelo kanpainaren bidegabekeriaren aurrean ezbaiko dago. Emigrante zamorarren semea izanik, ez da inoiz politikan sartu eta Espainian gailendu den kooperatibismo mugimenduaren mamian sinisten du. Arrazoia ematen diot. Edo berarekin zaude, edo frantsesen negozioa hazten segituko dugu (Carrefour), nahiz eta Arias Salgado ministro ohiaren aurpegi espainiarra eraman.

Carmen Rigalt

**El Mundo**

*(2001-01-21)*

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
**Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Marijo Deogracias. **Kazetariak**: Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano . **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Maddi Trutxuelo.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

# aurkibidea

• Lehen begiratua . . . . . . . . 3
• Asteko hitzorduak . . . . . . . 4
• Inkesta . . . . . . . . . . . . . . 5
• Astearen errepasoa. . . . . . 6
• Orain eta hemen . . . . . . 7/8
• Txutxumutxuak . . . . . 10/13
• Asteko gaia **Lehenengo aldiz 4.000 milioiak gainditu dira** . . . . . . 14/15
• Auzoz auzo . . . . . . . . . . . 16
• Zaldibar areto futbola. . . . . . . . . 19
• Kirolak jokoan. . . . . . 20/21
• Eskola-kirola . . . . . . . . . . 22
• Kulturaren txokoa . . . . . . . . . . . 23/24
• Uhinetan barrena . . . . . . 25
• Foto zaharra . . . . . . . . . . 26



# asteko **hitzorduak**

## ZERBITZUAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .................... 112
Gurutze Gorria ....... 943 76 55 76
DYA ................ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera .... 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan ............ egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera...... 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan . 09:00etatik 17:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
- Espezialitateak ....... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea .......... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11

Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ............. 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Ertzaintza**
Arrasate .............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ........... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................. 900 40 05 23
...................... 943 79 78 44
...................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ................ 943 79 12 22
PESA.................. 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentroak**
Iturbide Egoitza ........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............. 943 77 01 05

## MEZAK

**San Joan parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **09:00** (gaztelaniaz)<br>**11:00** meza nagusia (euskaraz)<br>**12:30** (elebiduna) |

**San Frantzisko eliza**

| Larunbata | |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **10:00** (gaztelaniaz)<br>**11:00** meza nagusia (euskaraz) |
| **Igandea**<br>**09:00** (euskaraz) | **12:30** (gaztelaniaz)<br>**19:00** (gaztelaniaz) |

**Uribarri parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **11:30** (euskaraz)<br>**12:30** (gaztelaniaz) |

**San Andres eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **10:00** (elebiduna)<br>**11:00** (euskaraz)<br>**12:00** (gaztelaniaz)<br>**13:00** (gaztelaniaz) |

**Santa Teresa eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (elebiduna) | **10:30** (gaztelaniaz)<br>**11:30** San Isidron (euskaraz)<br>**12:30** (gaztelaniaz) |

**Santamañako eliza**

| Jaiegun bezpera eta larunbata | Igandea |
|---|---|
| **19:00** (gaztelaniaz) | **12:00** (gaztelaniaz) |

## autobusa **donostiara**

Urtarrilaren 27an, *Burujabetza da Bakea* lelopean, Donostian egingo den kale agerraldirako autobusak antolatu dira. Garibaitik irtengo dira, 15:30ean. Irati tabernan eman behar da izena.

## san felipe apostolen **batzarra**

San Felipe Apostol elkarteak batzar nagusia egingo du urtarrilaren 28an, 12:15ean, Amaia antzokian. Aurretik, 11:00etan, meza izango dute parrokian, hildako bazkideen alde.

## santa ageda **koruak**

Santa Ageda Koruak-eko kantari, poltsero eta gainontzeko laguntzaileei dei egiten diete urtarrilaren 31n Casinora joan daitezen, 21:00etan. Parte hartzeko asmoa duzuenok, ez hutsik egin!



## san baleixo **jaiak**

Gaur hasi eta domeka arte San Baleixo jaiak ospatuko dira Meatzerreka auzoan. Gainera, ohikoa den moduan, bihar XX. mus txapelketa jokatuko da hango elkartean.

## umeendako **masajeak**

Umeendako masajearen inguruko ikastaroa antolatu du Mugi psikomotrizitate zentroak. Urtebete arteko umeak dituzten aitamendako. Otsailaren 10ean hasiko da. Argibide gehiagorako eta izena emateko, deitu 943 77 08 05 telefonora (Nati).

## amerikar indigenak **hizpide**

Urtarrilaren 30ean *Universidad para los indígenas* hitzaldia emango du Alfredo Lozano aditu ekuadortarrak. Monterronen izango da, 19:30ean.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Egubakoitza, 26**
- Irizar, Erguin

**Zapatua, 27**
- Amezua, Santa Marina

**Domeka, 28**
- Zabala, Zarugalde

**Astelehena, 29**
- Ruiz, Maalako Errabala

**Martitzena, 30**
- Morales, San Andres

**Eguaztena, 31**
- Azkoaga, Ferrerias

**Eguena, 1**
- Azkoaga, Iturriotz

Etxea salgai
ARRASATEN
Grupo San Juan
☎ 943 79 31 24

# Sentiberagoak gara kanpokoekin ingurukoekin baino?

*El Salvadorrekoa bezalako gertakarien ondoren, dirua biltzeko kanpainak jartzen dira abian*



**Mikel Azparren**
**(23 urte)**
**Ikaslea**

Bai, baina hipokrita hutsak gara. Horrelako kasuetan bakarrik eskaintzen dugu laguntza, eta hilabetera ahaztu egiten gara.



**Eneritz Pagaldai**
**(20 urte)**
**Ikaslea**

Horixe, baina horrelako zerbait gertatzen denean bakarrik laguntzen diegu, eta gertatu arte ez dugu ezer egiten.



**Juan Antonio Taido**
**(42 urte)**
**Langilea**

Bai, nire ustez gehiago hunkitzen gaituzte horrelako gertakariek.



**Maribel Erle**
**(53 urte)**
**Etxekoandrea**

Bai, horrelakoak ikusita bihotza biguntzen zaigu guztioi.



**Maria Pilar Aginalde**
**(74 urte)**
**Erretiratua**

Bai. Beti dirua bidaltzen gabiltza, gure inguruan nahiko miseria dagoela konturatu barik.



**Marta Saavedra**
**(27 urte)**
**Etxekoandrea**

Bai, kanpokoekin elkartasun handiagoa erakusten dugu, eta ez bakarrik El Salvadorko kasuetan, jeneralean baizik.



**Carlos Moreno**
**(30 urte)**
**Langilea**

El Salvadorkoa bezalako kasu bat gertatzean, dirua bidaltzen dugu, baina gertukoekin dugu elkartasun handien.



**Laird Murelaga**
**(22 urte)**
**Ikaslea**

Bai, nire ustez kanpoan gertatzen diren ezbeharrek gehiago hunkitzen gaituzte.





Adobe Photoshop 5.0



Otsailaren 5etik 23ra
14:30etik 16:30era (30 ordu)

Informazio gehiago: 943 79 35 33

AKADEMIA BASTIDA

## USTEAK USTE

### *Aurrekontuak direla eta*

**Lau mila milioiko aurrekontua aurkeztu dute udaletxean aurtengo urterako. Inbertsio zerrenda begiratuz gero, partida asko daude: kaleak hobetzeko, aisialdiarekin lotutako ekipamenduak gehitzeko, kultura eskaintza hobea izan dadin... Ongizatearen gizartearekin lotutako inbertsioak dira guztiak eta zerbitzuetako gizartearekin zerikusia ere badute. Etxebizitza merkeagoen beharra dela-eta, Arrasateko Udalak ikerketa bat egin nahi du mondragoetarren beharrak zeintzuk diren jakiteko. Horretarako, diru kopuru bat ere aurrez ikusi du 2001eko aurrekontuetan. Garbi dago etxebizitza gehiago behar direla, baina edozeinen eskura egon beharko liratekeen etxeak. Lurra udalarena izanda, espekulazioa saihes daiteke eta etxebizitzen prezioak egokiagoak izango dira. Etxebizitza politika hori beste herrialde batzuetan garatuago dago eta emaitza onak izan ditu. Zergatik ez gure artean?**

**Jakina, lurra egon-aurkitu behar lehenengo.**

**Marijo Deogracias**

## astea bi hitzetan

### ■ Adjudikatuta

Makina bat buelta eman ondoren, Galdeano enpresa aukeztu da San Prudentzio eta Epele arteko errepideko hobekuntza lanak egiteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 383 milioi pezeta jarri zituen lan horiek egiteko, eta abenduaren 5ean izan behar zen lehiaketa irekia. Baina, egun horretan ez zen enpresarik aurkeztu. Hori ikusita, diputazioak %10 igo zuen lanen aurrekontua eta lau enpresari bidali zien. Galdeano enpresak onartu egin zuen proposamena.

Orain, enpresa horrek bi hilabete izango ditu proiektua aurkezteko. Hortaz, lanak martxoaren erdialdean hasiko dira eta sei hilabete iraungo dute.

Bi lan egin beharko ditu: San Prudentzio eta Epele arteko errepidea zabaldu eta hobetzea eta San Prudentzion bertan zubi berria egitea, biribil erakoa.

### ■ Copreci nazioartera

Copreci kooperatibak 10.000 milioi pezeta inbertituko ditu datozen hiru urteetan. Inbertsio horrek helburu nagusi bat izango du: nazioartera zabaltzea.

Izan ere, Txekian, Mexikon eta Estatu Batuetan dituen hiru fabrikez gain, aurten laugarren bat erosi nahi du Sao Paulo inguruan.

Horrez gain, datozen hiru urteotan produktu berriak ateratzea ere nahi du Coprecik, batez ere elektronikan; eta horrekin batera, salmentak handitzeko egitasmoa ere prestatu du.

### ■ Istripua Kanpanzarren

Kanpanzarrerako bidean, Montxo baserriaren parean, istripua izan zen pasa den egubakoitzean. Bi autok aurrez aurre jo zuten, bata gora zihoala eta bestea, beherantz.

Ondorioz, hiru lagun eskualde ospitalera eraman zituzten, kolpe arinekin. Beste bi lagun, bata Arrasatekoa, gainera, anbulantzian eraman zituzten, kolpe gogorragoekin.

### ■ Industria museoa

Eskualde ospitalearen atzealdean Cerrajerak dituen biltegi zaharrak bota egin behar direla-eta, pasa den egunean eta egubakoitzean han zeuden makinak Lasa enpresaren pabilioira eraman zituzten.

Orain, Lasanean egongo dira, harik eta aurten bertan erakusketa bat antolatzen den arte, Cerrajeraren eraikin nagusian.



### ■ Dantza ekitaldia

Jai giroa izan zen zapatuan Mondragoen, trikitrilarien, txistularien eta dantzarien eskutik. Gazte Ekimenak gonbidatuta, euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko irten ziren kalera.

Dantzari eta musikariek ikusle ugari erakarri zituzten, eta ikusleek txaloka eskertu zuten beraien ahalegina. Arku dantza eta Mutil dantza eskaini zituzten, besteak beste, herriko hainbat gunetan.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# EHk zinegotzi bat gutxiago izango du oraingoz

Juan Luis Arexolaleibak, EHko zinegotziak, kargua uztea erabaki du eta halaxe jakinarazi zion atzo udalbatzarrari.

Idatzi baten bidez jakinarazi zuen arrazoi pertsonalak direla medio utziko duela kargua: "Aspaldian nire jarduera profesionalak eskatzen dizkidan dedikazioa eta ardurak direla eta, ezinezkoa egiten zait udalean ditudan ardurei behar beste denbora eskaintzea eta zereginei duintasunez erantzutea. Bizi dudan egoera hori kontuan izanik, Arrasateko Udalean dudan zinegotzi kargua uztea erabaki dut".



**Iaz hasi zen Juan Luis Arexolaleiba zinegotzi lana betetzen.**

1999an aurkeztu zen Juan Luis Arexolaleiba EHko zerrendetan zinegotzi izateko, eta Euskara Saileko batzordeburua izan da ordutik hona. Juan Jose Saenzek, garai bateko HBko zinegotziak, hartuko du 'Gatxi'ren kargua. Euskara batzordeko lanak, berriz, Larraitz Trojaolak hartuko ditu bere gain.

Eta kargu-uzte horretaz eta aurrekontuez gain, bestelako gairik ere landu zuen atzo udalbatzarrak. Adibidez, proposatu zen Deba ibaia bideratu eta Zabaleta aldean zubi berriak eraikitzeko proiektua behin betiko onartzea. Lan horien zati bat finantzatzeko Eroskirekin lankidetza hitzarmena sinatuko da Eroski barrualdetik errepide ondoan dauden enpresetara sartzeko bidea egiteko.

Bestalde, Markuleteko partzela baten jatetxe edo antzeko negozio bat jartzeko lehiaketara aurkeztutako inork irabazi ez duenez, lehiaketa hori berriro ere deitzea proposatuko zitzaion udalbatzarrari. Edozelan ere, albiste hau idaztean osoko bilkura egiteke zegoen.

# Ia milioi bat pezeta Kolonbiara

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak 750.000 pezeta batu ditu Kolonbiako San Klemente herrira bidaltzeko.

Abenduan hasi zen dirua batzen. Arrasateko artistek emandako 50 margolanetik gora jarri zituzten salgai Frantziskotarren aretoan, eta saldutako margoei esker jaso dute diru kopuru hori. Gobernuz kanpoko erakunde horrek emandako datuen arabera, 2.000 bat bisita jaso dituzte abenduan.




**SAN CLEMENTERAKO**

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa praktikatzeko etxalde bat egin nahi dute Kolonbiako San Clementen. Etxaldea eraikitzeko proiektu osoaren aurrekontua 10 milioi pezetakoa da. Gabonetako margolan salmentaren bidez lortutako diruaz gain, Arrasateko Udalaren ekarpenen bidez jasotako beste lau milioi ere bideratuko dira hara. Hortaz, aurrekontu osoaren ia erdia.

Guztiagatik, Harremanek eskerrak eman dizkie proiektuan lagundu duten guztiei.

# Artezilariak Mondragoen

Astelehen iluntzean Ertzaintzako artezilariak Mondragoen egon ziren. Fagor Garagartzako ingurua hesitu zuten. Izan ere, banku baten gainean maletatxo bat zegoen, norbaiti susmagarria iruditu zitzaion eta Ertzaintzari abisatu zion. 20:45ean itxi zuten bidea, zirkulazioa Untzillatik desbideratuz. Bi orduan hantxe egon ondoren, maletatxo susmagarriaren barruan ezer ez zegoela ikusi zuten eta berriro ireki zuten bidea. Zorionez, susto hutsa izan zen.

beinke

ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Lore
• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

## Otsailerako greba

Deba arroko sindikatuak eta ADEGI enpresarien elkartea Gipuzkoako metal sailerako lan-hitzarmen egokia lortzeko batzarrak egiten dabiltza. Edozelan ere, oraindik ez dute adostasunik lortu eta astelehenek batzarraren ondoren, otsailean greba egongo dela iragarri zuten sindikatuek; hiru egunekoa, otsailaren 2, 8 eta 9an. ELA, LAB eta ESK-k bat egin dute deialdiarekin eta CCOO-k oraindik ez du erantzunik eman.

**EZTABAIDA**

ELAk eta LABek osatzen duten taldeak bi eskari egin ditu: soldata errealen igoera %6 arte (bi puntu Kontsumo Prezioen Indizearen gainetik) eta lanorduak murriztea, 35 orduko lan-astera hurbiltzen joateko.

Ostera, ADEGI elkartearen proposamenak dira soldata %4 igotzea eta lan-orduak ez murriztea.

## Beiraren birziklapena gora

Mankomunitateak jasotako datuen arabera, Debagoienean, oro har, geroago eta beira gehiago birziklatzen da. 1999. urteko datuekin alderatuz, birziklapena %15 igo zen pasa den urtean. Guztira, 1.512 tona jaso ziren Debagoienean 2000n. Urtarrilean, otsailean, uztailean eta abenduan jaso da beira gehien.

Mondragoe ere sartzen da, jakina, estatistika horien barruan. 2000. urtean 573 tona beira birziklatu genuen herriko 23.000 biztanleen artean.

# El Salvadorri laguntza




**100 pezetatik 1.000 pezetarainoko diru laguntzak eman daitezke.**

El Salvadorrek bizi duen zoritxarreko egoerari aurre egiten laguntzeko ekimenak hasi dira Mondragoen.

Batetik, herriko udalak milioi erdi pezeta eman dizkio Oscar Romero elkartasun taldeari, El Salvadorrera bidaltzeko. Baina ez da izan batu den laguntza bakarra.

**EROSKI**

Bestetik, Eroski kooperatibak bere denda guztietan herritarren dirua jasotzeko ekimena abian jarri zuen astelehenean. 100 pezetatik hasi eta 1.000 pezetarainoko diru laguntzak eman ahal izango dira. Dendan erositakoa ordaintzeko orduan, eman nahi den kopurua zein den esan eta hori gehitu egingo diote bezeroari. Ekimenak, gutxi gorabehera, bi aste iraungo du. Albiste hau idazteko orduan Eroskiko ordezkariek egindako balorazioa oso positiboa izan da.

Ekimena amaitu eta jasotako dirua kontatu ondoren, Eroski kooperatibak berak partida bat gehituko dio.

**FAGOR**

Eta beste kooperatiben artean, Fagorreko fabriketan ere badabiltza dirua batzen; Garagartzan, esaterako, nahi duen langileak lanordu bati dagokion dirua eman dezake; San Andresen ere antzeko zerbait egiteko asmoa dute.

# LHTren Angiozarko geralekua ez da zeharo egokia

Lastertasun Handiko Trena ez da Angiozarren geratuko, bidaiariendako ez delako egokia. Horixe erantzun dio Eusko Jaurlaritzak Arrasateko Udalari, honek bailaran geraleku bat egindako eskaerari, hain zuzen. Jaurlaritzaren ustez, Angiozarko geralekua egokia da merkatariendako, baina ez bidaiariendako, eta horrexegatik erabaki dute hemen ingururako geralekua Ezkio-Itsason ipintzea.




**Jaurlaritzaren ustez, geralekua merkatariendako bakarrik da egokia.**

**LEZETXIKI BABESTUTA**

Ostera, bestelako alegazioen artean, herriko udalak Jaurlaritzari eskatu zion Lezetxikiko inguruak babesteko, ibilbidea apurtxo bat desbideratzea. Alegazio hori zuzena dela erabaki du Jaurlaritzak eta LHTren ibilbidea aldatu egin du Lezetxikiko eremutik 300 metro iparraldera eta mendebalera.

Horrez gain, Kobate eta Kanpanzar harrobien inguruko ibilbidea aldatzeko ere eskatu zuen udalak, baina hori ez dute Jaurlaritzan onartu: «Ibilbidea ekialdera mugitzeko aukeraren bideragarritasuna ere aztertu da; baina, ustiapen horietan eragingo dituen kalteak direla medio, ezin izango da horrelakorik egin».




**Eperako Aurrezkia • Interesak bikoizteko hamarretik aukera bat • Ohiko interesak bermatzen ditugu**

Urtarrilaren 15etik otsailaren 16ra bitartean eperako ezarpen bat egin eta horren zenbakiaren azken zifra dagokion ostiraleko ONCEren zozketan sarituriko kupoiaren zenbakiaren azken zifrarekin bat badator, 6 hiletako interesen kopurua irabaziko duzu. Adibidea: urte baterako 2 milioitik % 3,75eko UTB. Zure ezarpena saritutakoa bada, ohiko interesez gain, 37.500 pta.ko saria jasoko duzu.

Parte-hartzeko epealdiak:

- Urtarrilaren 15etik 19ra (zozketa urtarrilaren 19ko ostiralean).
- Urtarrilaren 20tik 26ra (zozketa urtarrilaren 26ko ostiralean).
- Urtarrilaren 27tik otsailaren 2ra (zozketa otsailaren 2ko ostiralean).
- Otsailaren 3tik 9ra (zozketa otsailaren 9ko ostiralean).
- Otsailaren 10etik 16ra (zozketa otsailaren 16ko ostiralean).

Baldintzak:

- Dagokien txartela duten sei hilerako, urte baterako eta bi urterako ezarpenek hartzen dute parte.
- Aste bakoitzeko zozketan epealdi horretan egindako eragiketak bakarrik sartuko dira.
- Ez dute ez berritzeek ez aldaketek balio, ezarpen berriek bakarrik.
- Eskudiruzko sari hau ondare-irabazitzat hartuko da.

**Aurrezki Bermatua • % 7rainoko UTB • Inbertitutako kapitalaren % 100 bermatzen dugu**

Ezaugarriak

**Epea:** 2 urte eta egun 1.
**Bermea mugaegunaratzean:** inbertitutako zenbatekoa oso-osorik itzultzea.
**Errendimendua:** % 7rainoko UTB*. % 14'50 metatua.
**Harpidetzeko epea:** 2001-01-29ko 14:00ak arte.

* Betiere, mugaegunean Deutsche Telekom-en kotizazioak hasierako kotizazioaren azpitik ez badago. Deutsche Telekom-en kotizazioa azpitik geratzen bada, % 14'50ari jaitsieraren aldea kenduko diogu, baina betik bezeroak kapitalaren %100 berreskuratuko duela bermatuta.

Eskaintza hau Gipuzkoarako bakarrik da.

*901 333 444*
*www.cajalaboral.es*

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

*Zurekin elkarlanean*

## LIMOIONDOA MONDRAGOEN



Ez gaude Valentzian, baina hemen ere limoiak hori-hori eta eder-eder hazten dira. Cerrajerako etxeetan dago limoiondo hau, Maribel Iglesiasen etxean. Galiziatik lorontzian ekarri zuten, eta begira zelan hazi den!

## SAN SEBASTIANAK ARETXABALETAN



Donostian eta Azpeitian ez ezik, bailaran ere egun handia da San Sebastianekoa. Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxeko umeek gustura ospatu zuten, bakoitzak bere danborrari eraginez, eurek egindako txapelak eta mantalak soinean.

## TXOTX!

Joan den eguenean Maite Aristegik ireki zuen sagardo denboraldia Iturrietan, Aramaion. Aurten emakumeak nagusi sagardotegietan



## SEN HIRUKOTEA ZEN?



Indartsu dabilen talde bat izan genuen Arrasate Irratian: Sen hirukotea, hain zuzen. Bai, bai, hirukotea, nahiz eta argazkian Aitor Uriarte baino ez den agertzen. Hortaz, bozeramaile lanetan jardun behar izan zuen.

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08


ESLU
Txaro Carrizo
LASER épil
LASER BIDEZKO BEHIN-BETIKO LEHENENGO DEPILAZIO METODOA
Gizon zein emakumeentzako, gorputzeko edozein ataletan.
Minik gabekoa eta efekturik ez daukana.
Bezero bakoitzari bermaturiko kontratu bat ziurtatzen zaio.
Eskatu ezazu azterketa eta aurrekontua dohainik.
GUSTURA EZ BAZAUDE %100 DIRUA ITZULIKO DIZUGU
• Depilazio argizari hotzaz nahiz beroaz.
• Depilazio elektrikoa.
• Aurpegi garbiketak.
• Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak.
• Masaiak.
• Manikura eta pedikura.
• Landutako azazkalak.
• Makilaje profesionala, ikastaroak.
• Solarium.
Olarte, 18-behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 37 88


GUNEAK:
HAUR HEZKUNTZA
Olarte (2-6 urte)
Santa Teresa (2-6 urte)
S. Viator Txiki (2-6 urte)
Umezaintza (0-6 urte)
Jose Arana-Almen (0-6 urte)
Sta. Rita (2-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)
• Almen
• Gazteluondo
• Sta. Teresa
• S. Viator Txiki
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 urte)
• Ferixalekua
• S. Viator
• Almen
BULEGO INFORMATIBOAK
Arrasate Ferixalekua 15:00-19:00 943 77 20 25
Aretxabaleta Arizmendi 17:00-19:00 943 79 31 32
Eskoriatza Jose Arana-Almen 14:00-18:00 943 71 44 86
Arizmendi ikastola

# Osasun Gida

AKUPUNTURA
- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ... ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA
- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ... ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA
- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ... ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA
- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ... ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ... ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ... ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK
- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA
- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ... ☎ 943 77 12 63

OPTIKA
- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ... ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA
- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ... ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea ... ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA
- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ... (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ... ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA
- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ... ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA
- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ... ☎ 943 79 44 22

OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 943 71 23 91

# PAPER DENDATIK TENERIFERA



Montserrat Ortubai mondragoetarrak irabazi du Donostia, Ordizia eta Arrasateko Tamayo paper dendek antolatutako zozketa. 700 bat kupoi jaso zituzten. Orain, Tenerifen astebete egoteko aukera du Montserratek. Hori bai, hegazkina ez zaiola askorik gustatzen onartu digu.

# ABERATS IZAN NAHI?




Ezagun egiten zaizuela? Ez da harritzekoa: T5 kateko 50x15 lehiaketan parte hartu zuen Diego Garcia mondragoetarrak. Proba asko gainditu behar izan zituen, eta azkenean, 300.000 pezeta sakelaratu zituen Diegok. Ez da marka txarra!

# MCC, INTERNET ETA `EL MUNDO´




Interneten Eroskiren aurka hedatu den kanpaina batek hainbat egunkaritako zutabegileren arreta deitu du. Joan den domekan Carmen Rigalt-ek zutabetxo bat idatzi zuen horren inguruan, eta aste honetan Besteek Esana sailean aurkituko duzue.

# ANTZINAKO ZAINDARIA GOGORATUZ



Bazenekiten garai bateko Mondragoeko zaindaria Santa Marina zela? Ba, hori gogoratzeko, elizaren berrikuntzarako taldearen proposamenez, Santa Marinaren irudia ipini da Erdiko Kalen.

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

# Lehenengo aldiz 4.000 ri

**Urte hasierarekin batera, aurrekontuak erabaki ohi dira Mondragoen eta halaxe egin zuen atzo udalbatzarrak. Aurreneko aldiz, herriak lau mila milioi pezetako aurrekontua gaindituko du: 4.476.680.119 pezeta izango ditueta 2001. urtean gastatzeko; iaz baino 14'8a gehiago, alegia. Eta horri AUKEAri dagozkion 184.997.277 pezeta eta Iturbide Egoitzari dagozkion 240.739.000 pezeta gehitu behar zaizkio. Hortaz, guztira, (barne transferentziak kenduta) 4.717.440.636 pezeta ditu udalak gastatzeko*.**

Aurrekontu osotik, diru gehien jasoko duen batzordea Hirigintza da, jeneralean moduan. 1.139 milioi pezeta ditu aurten inbertsioak egiteko, aurrekontu osoaren laurdena pasatxo, %25,5, hain zuzen. Diru kopuru horrekin egingo dira, besteak beste, Zabaleta aldeko zubiak eta Deba Ibaiaren bideratzea, (108.095.506 pezeta), babes ofizialeko etxeak egin ahal izateko Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren garapena (318.120.000 pezeta) eta Alde Zaharreko gunearen mantentze-lanak (81.000.000 pezeta).

Zerbitzuei dagokie, ondoren, partidarik handiena: 1.063,3 milioi pezeta, aurrekontuaren %23,2, hain zuzen. Eta udalak ematen dituen zerbitzuen artean, ur eta saneamenduko inbertsioek (21 milioi), bide publikoen urbanizazioak (20 milioi) eta Laubideko parkinaren ekipamenduek (17 milioi) jasoko dute diru gehien. Azken honen inguruan, Zerbitzuen batzordeak aparkaleku automatiko bat egiteko asmoa du, udaletxetik ordenagailuz kontrolatutakoa. Gau eta egun egongo litzateke zabalik eta orduko 50 pezeta kostako litzateke.

Kultura dago hirugarren tokian. 613,8 milioi pezeta egokitu zaizkio, aurrekontuaren %13,7. Eta horietatik 100 milioi Amaia antzokia egokitzeko eta eguneratzeko erabiliko dira. ■

Ubane Madera



Bost milioiko inbertsioa egingo da Industria museoan. Joan den astean hasi ziren museorako piezetako batzuk Cerrajera zaharretik ateratzen eta Lasa enpresaren pabilioira eramaten.




**1991eko aurrekontu orro 02**
**2001eko aurrekontu orok 80.**

**HERRITARRENDAKO INTERES DA**

- **Komun publikoak (10 mili** ube
- **Gorpuak erretzeko labea** eila tobalen.
- **Etxebizitzen inguruko iker i):**
- **Talde nomaden kanpamen** nilio
- **Liburutegi berria (50 milio** a e ra ospitale zaharrean.
- **Garaia egitasmoa (100 m** an koaren ondoan egingo dut eta
- **Musakolako Zahar Etxea (**
- **Gaztetxea (40 milioi):** da n h teko muga moduan.

*Informazio hau idatzi zenean oraindik gin proposamen guztiak onartu ziren edo lite EH, EB eta EAren (udal gobernuaren) ahien

# ioiak gainditu dira

## Aurrekontua milioitan




A: **Gobernu organoak**
B: **Kultura eta kirolak**
C: **Hezkuntza**
D: **Osasuna**
E: **Hirigintza**
F: **Pertsonala**
G: **Auzoak**
H: **Udal Zerbitzuak**
I: **Euskara**
J: **Gazteria**
K: **Finantza Zorra**
L: **Emakume Saila**
M: **Garapen ekonomikoa eta enplegua**
N: **Ingurumena**

**orro 020.473 pezetakoa izan zen.**
**orok 80.119 pezeta;** horrez gain, Iturbide egoitzak 240.739.000 pezetako aurrekontua du eta AUKEAk, berriz, 184.997.277 pezetakoa.

### ERE DAITEZKEEN INBERTSIOAK

**mili** ube plazan edo Kultura Etxean.
**pea** eilatokiarekin batera San Kris-

**iker i):** dagoen beharra aztertzeko.
**amen milioi):** Meatzerrekan.
**milio** a erakusketa aretoarekin bate-

**0 m** an 250 milioi Eskola Politekni-
dut ta ikasgela berrietarako.
**kea (k):** orain dagoena konpontzeko.
**: dat** n hasiera ipini dute lanak has-

**aindik gin barik zegoen, beraz, ez dakigu edo litekeena da bere horretan onartzea, ren) ehiengoa direlako.**

### SAILEZ SAIL



# Meatzerreka Imanolen ikuspuntutik

**Auzo baten gainean zer edo zer jakiteko, egokiena auzo horretako bati galdetzea izaten da, eta geuk ere horixe egin dugu oraingo honetan. Imanol Etxeberria, Athleticeko jokalaria, Uba baserrikoa da, eta harekin berbetan izan gara:**

**— Zelan definituko zenuke auzoa?**

—Noizean behin egoten naiz, bereziki baserrian, mendian eta auzoko elkartean. Edozelan ere, lasai egoteko leku aproposa da niretako. Ahal dudan guztietan, txakurrekin auzoko mendi aldera joaten naiz eta hori oso ondo datorkit. Oso lasaia dela esango nuke.

**— Hortaz, zeure txokoa dela esan genezake?**

— Bai. Astean behin etortzen naiz, entrenamendurik ez dagoenean aprobetxatuz: etxekoei bisitatxoa egin, eta eguraldi ona badago, paseatzera.



**— Jaietara etorriko zara?**

— Ez dut uste ahal izango dudanik, lanagatik. Txikitan egoten nintzen, hori bai. Dena dela, aurten aita-ama ibiliko dira jaietan. Auzoko afarira joango dira, seguru.

**— Jaien gaineko zein oroitzapen duzu?**

— Oso ona. Auzoko afarian, adibidez, oso giro polita izaten zen, bertsolariekin, afalosteko opari banaketa… Eta txerri harrapaketan ere ibilia naiz…

**— Auzokideei zer esango zenieke?**

— Ohitura hauek ez direla galdu behar eta lanean jarraitzeko, betiko ilusio berarekin. Hori, bereziki, auzoko gazteei esango nieke. Ohitura hauek antolatzeko txanda hartu eta aurrera segitzeko!



San Balerio ermita.

Meatzerreka auzoari begiratu behar diogu oraingo honetan, San Balerio eguna denez, auzoko jaiak ospatzen dituzte-eta asteburuan. Ugaldegain baserrian hasi eta Sara jatetxeraino doa baserri auzo hau. Inazio Zuazubiskarrek, auzo alkateak, kontatu digunez, gaur egun dagoeneko ez da inor baserritik bizi, baina oraindik ere baserri guztietan bizi da jendea, eta auzokideen arteko tratua ona da.

## EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

**20:00** hasiera
**21:00** auzo afaria bertsolariekin (Peñagarikano eta Irazu)

**ZAPATUA**

**12:00** futbito partida Peñakoba autoeskolaren lautadan
**15:30** ume eta gazteendako jolasak, elkartean
**16:00** Gorritiren abereak
**17:00** XX. mus txapelketa, elkartean
**23:00etatik aurrera:** Anaiak taldearekin erromeria
**01:00** txerri harrapaketa eta txokolate-jana

**DOMEKA**

**11:30** meza ermitan, Gesalibar eta Garagartzako abesbatzak lagunduta
**13:00** trikitrilariak eta buruhandiak
**14:00** jaien amaiera





Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



# Etxeko konponketak

## Aroztegia

**Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.**

AROZTEGIA LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde,5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltsaritza

*Izcue Irurzun*

Igeltsaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

**Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66**

## Leihoak

**ARGI PLASTIK**

***PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.***

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**

*PVC • Aluminioa RPT*
*Poliuretanoa • Bitarikoak*

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea,2-behea • **ARRASATE**
Tel./Faxa: 943 79 11 35

## Elektrizitatea

**ARANZABAL KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

***ARRASATE Elektrizitatea***

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**
Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

**AURI**

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak**
**Gasa • Berogailuak**

**EGIA** iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

**APAIN**

**MARGO ETA APAINKETA**

**Matiena, 3-1**
**Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17**

**JOVI**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

## Tapizeriak

***Konrado***

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...
**Eskatu aurrekontua.**
Nafarroa etorbidea, 23 MI11
Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

## Giltzak




• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**
**Tel./Fax: 943 79 76 03**

Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora

# Otsaila kulturala Amaia antzokian

## Zinea

**1 OSTEGUNA**

- Buena vista social club
  Zuz: Wim Wenders

**8 OSTEGUNA**

- La ducha
  Zuz: Zhang Yang

**15 OSTEGUNA**

- Las confesiones del doctor Sachs
  Zuz: Michel Deville

**22 OSTEGUNA**

- The acid house
  Zuz: Paul Mc Guigan

Ordua: 21:30etan




## Antzerkia

**4 IGANDEA**

- "El hombre que confundio a su mujer con un sombrero"
  TXALO Antzerki Taldea

Ordua: 19:30etan



## Musika

**25 IGANDEA**

- Golden Apple Quartet
  "Sin 4 instrumentos"

Ordua: 19:30etan




ARRASATEKO UDALA **Kultura Saila**

## Emaitzak

**A taldea**

Txeyenex 3 - AC Surkos 5
Bikain Aka.2 - Aurrera Bolie 2
Lasagabaster 7 - Goma 2 4
Katxiporra 1 - YK Azkena 3
Betrayer 3 - Makanaki 6
Kanpanzar harrobia 1 - IKP 4
Chapime Dribling 9 - AL Ion 3
Komando Alpargat 5 - Leya 3
The Pippol 0 - Serengeti 1

**B taldea**

Rayo Aldeano 7 - Kamasutra 4
Fraguel Gol 3 - KJ Basati 2
Txotx 1 - AKTA 5
DKB Kobate 4 - Usotz Potroak 3
Etxerat Tab. 5 - Pep.inserso.com 2
Irati STS 4 - Alai Gozokiak 7
New Makai 0 - Full Duplex 6
Iriztu 1 - AT Celaya 7
Abocajarro 7 - Sass T 3



## Sailkapenak

| A taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Aurrera Bolie | 7 | 6 | 1 | 0 | 39 | 12 | **13** |
| Lasagabaster | 7 | 5 | 1 | 1 | 43 | 23 | **11** |
| Komando Alpargat | 7 | 5 | 1 | 1 | 37 | 25 | **11** |
| Bikain Akademia | 7 | 4 | 2 | 1 | 34 | 16 | **10** |
| AC Surkos | 7 | 5 | 0 | 2 | 29 | 24 | **10** |
| IKP | 7 | 5 | 0 | 2 | 27 | 26 | **10** |
| Serengeti | 7 | 4 | 2 | 1 | 24 | 19 | **10** |
| YK Azkena | 7 | 4 | 2 | 1 | 17 | 17 | **10** |
| Chapime Dribling | 7 | 4 | 1 | 2 | 34 | 21 | **9** |
| Goma 2 | 7 | 3 | 2 | 2 | 34 | 25 | **8** |
| Katxiporra | 7 | 4 | 0 | 3 | 29 | 35 | **8** |
| Makanaki | 7 | 2 | 1 | 4 | 15 | 17 | **5** |
| Leya | 7 | 1 | 2 | 4 | 13 | 19 | **4** |
| Kanp. Harrobia | 7 | 1 | 1 | 5 | 19 | 31 | **3** |
| Betrayer | 7 | 1 | 0 | 6 | 27 | 38 | **2** |
| Txeyenex | 7 | 1 | 0 | 6 | 15 | 36 | **2** |
| AL Ion | 7 | 0 | 0 | 7 | 12 | 56 | **0** |
| The Pippol | 7 | 0 | 0 | 7 | 7 | 18 | **0** |

| B taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Etxerat Taberna | 7 | 7 | 0 | 0 | 57 | 15 | **14** |
| Iriztu | 7 | 5 | 1 | 1 | 23 | 13 | **11** |
| Pep.Inserso.com | 7 | 5 | 0 | 2 | 32 | 22 | **10** |
| AT Celaya | 6 | 5 | 0 | 1 | 29 | 16 | **10** |
| Irati STS | 7 | 4 | 1 | 2 | 29 | 16 | **9** |
| KJ Basati | 7 | 4 | 0 | 3 | 35 | 20 | **8** |
| Kamasutra | 7 | 4 | 0 | 3 | 32 | 23 | **8** |
| Fraguel Gol | 7 | 4 | 0 | 3 | 29 | 28 | **8** |
| Rayo Aldeano | 7 | 3 | 1 | 3 | 44 | 29 | **7** |
| Usotz Potroak | 6 | 3 | 1 | 2 | 30 | 10 | **7** |
| AKTA | 7 | 3 | 0 | 4 | 29 | 25 | **6** |
| Full duplex | 6 | 3 | 0 | 3 | 22 | 24 | **6** |
| EPEH | 6 | 3 | 0 | 3 | 18 | 23 | **6** |
| DKB Kobate | 7 | 2 | 1 | 4 | 22 | 33 | **5** |
| Alai Gozokiak | 6 | 1 | 1 | 4 | 22 | 33 | **3** |
| Txotx | 7 | 1 | 1 | 5 | 11 | 40 | **3** |
| Abocajarro | 6 | 1 | 0 | 5 | 20 | 39 | **2** |
| New Makai | 6 | 1 | 0 | 5 | 9 | 38 | **2** |
| Sass T | 7 | 0 | 1 | 6 | 10 | 46 | **1** |




## Hurrengo partidak / 8. jardunaldia

**Urtarrilak 27, zapatua**

**Zaldibar** — **Epailea**

| | | |
|---|---|---|
| 09:50 | Lasagabaster - Makanai | (Serengeti) |
| 11:00 | Kanpanzar harrobia - Sergentegi | (Lasagabaster) |
| 12:00 | Rayo Aldeano - KJ Basati | (Kanpazar Har.) |
| 13:00 | Bikain Akademia - YK Azkena | (KJ Basati) |
| 14:00 | Dribing - Leya | (YK Azkena) |
| 15:00 | Katxiporra - IKP | (Dribling) |
| 16:00 | AC Surkos - Goma 2 | (IKP) |
| 17:00 | Kamasutra - AKTA | (AC Surkos) |
| 18:00 | Txotx - Usotz Potroak | (AKTA) |
| 19:00 | New Makai - Sass T | (Usotz Potroak) |

**Iturripe A** — **Epailea**

| | | |
|---|---|---|
| 14:50 | DKB Kbate - Alai Gozokiak | (Full Duplex) |
| 16:00 | Etxerat Taberna - Full Duplex | (DKB) |

**Iturripe B** — **Epailea**

| | | |
|---|---|---|
| 14:50 | Txeyenex - Aurrera Bolie | (Abokajarro) |
| 16:00 | Iriztu - Abocajarro | (Aurrera Bolie) |

**Urtarrilak 28, domeka**

**Zaldibar** — **Epailea**

| | | |
|---|---|---|
| 10:50 | Irati STS - AT Celaya | (EPEH) |
| 12:00 | EPEH - Pepelus.inserso.com | (Irati STS ) |
| 13:00 | Betrayer - AL Ion | (Pepelus.inserso.com) |

## ESKUBALOIA
### Aurrera mutilak

Eskubaloi taldeko nagusiak aritu ziren ondoen asteburuan; elgoibartarren aurka 11-20 irabazi zuten. Kadeteak ez ziren hain fin ibili Usurbil aldean eta hango taldea nagusitu zitzaien (32-23).

Ondo hasi eta gaizki bukatu. Hori da, aspaldian, taldearen jokoa. Igoera aldian daude hauek eta talde gogorren aurka jokatzen dabiltza. Konfiantza falta dutela nabari zaie, eta, besteak beste, defentsa sendotu behar dute.

Gazteek ere ez zuten partida onik egin: bergararren aurka berdindu zuten (23-23). Hasiera kaskarra izan zuten, "talde itxura barik", jokalarien esanetan. Partidak aurrera egin ahala, hobetuz joan ziren, baina ez zituzten aurkariak gainditu. Epaileak amaiera adieraztearekin batera, bergararrek gola sartu zuten. Denboraz kanpo geratu zen gola, eskerrak epaileari!

Federazio kopan lehenengo geratzeko aukera asko ditu taldeak. Txapeldun izateko, hiru partidatik bakarra irabaztea nahikoa lukete mondragoetarrek.

## ATLETISMOA
### Mugerza memoriala

Elgoibarren jokatzen den lasterketa horretan ez ziren keniarrak bakarrik aritu. Jabier Mentxaka beteranoa ere han izan zen eta sailkapen orokorrean 31. izan zen. Hurrengo proba Lasarten jokatuko du; izan ere, domekan Donostia-Lasarte nazioarteko krosa jokatuko da, 46. aldiz, 10.000 metroko luzerarekin.

Alebinetan Markel Blanco ibiliko da eta Idiazabalgo krosean Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko alebinak, infantilak, kadeteak eta beteranoak arituko dira.

Bestalde, Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariek pista estaliko Gipuzkoako txapelketa absolutuak jokatuko dituzte Anoetan; hortaz, federazioak eskatutako gutxieneko marka dutenak arituko dira. 60 metroko lasterketan Angel Ribera bergararra eta Unai Sarabia mondragoetarra arituko dira. 200 metroko lasterketan, aurreko bi horiez gain, Remi Diosdadok hartuko du parte, eta 400 metroko lasterketan Martin Davila eta David Blanco arituko dira. Jonathan Perez, Real Sociedad taldean ari den kirolari arrasatearrak, pertika jauzian hartuko du parte.

## SASKIBALOIA
### Etxean galdu

Kenci Arrasate taldeak ezin izan zion irabazi Atletico de San Sebastian taldeari: 71-86 galdu zuen etxeko taldeak.

Bisitariek partida bakarra galdu dute denboraldi honetan. Lehen laurdena nahiko parekatuta bukatu zen: 21-23; baina, hurrengo lau minutuetan erabat aldatu zen norgehiagoka eta kanpotarrek nabarmen handitu zuten aldea. Azkenean, esan bezala, galdu egin zuen Kenci Arrasate taldeak.

Bestalde, Mikel Pagaldai aipatu behar dugu. Lehenengo aldiz jokatu zuen Kenci Arrasateko talde nagusiarekin. Eskoriatzako taldean jokatzen zuen eta baita Aramaion ere.

Asteburu honetan Errioxan jokatuko du Kenci Arrasatek, Caja Riojaren aurka.

## ERRUGBIA
### Gasteizen irabazi

Arrasateko errugbi taldeak Gasteizen jokatu zuen asteburuan eta irabazi egin zuen. Joseba Maidaganek esan zigunez, Maritxutako jantziekin joan ziren Gasteizera, «irudi ona emateko asmoz», eta ez dakigu horrek eraginik izan zuen, baina 27-29 irabazi zuten mondragoetarrek. Hiru transformazio, zigor kolpe bat eta lau entsegu egin zituzten arrasatearrek, eta horrela, bi puntuak etxeratu zituzten. Pichichia Markel Elortza izan zen.

Asteburuan Donostian jokatuko dute Bera-Beraren aurka. Irabazteko aukera asko dituzte mondragoetarrek.

## Emaitzak

**FUTBOLA**
- **Lehen erregionala:** Mondra 0 - Euskalduna 2
- **Lehen gazteak:** Intxurre 2 - Mondra 3
- **Bigarren gazteak:** Arrasate 5 - Hondarribia 1
- **Ohorezko kadeteak:** Mariño 1 - Arrasate 1
- **Bigarren kadeteak:** Arrasate 0 - Aldapetarrak 2
- **Ohorezko infantilak:** Orioko 3 - Arrasate 2
- **Lehen erregionala, neskak:** Antzuola 1 - Mondra 2

**ESKUBALOIA**
- **Seniorrak:** Elgoibar 11 - Arrasate 20
- **Gazteak:** Arrasate 23 - Bergara 23
- **Kadeteak:** Usurbil 32 - Arrasate 22

**XAKEA**
- **Preferente:** Arrasate A 0,5 - Ibarra A 3,5
- **Lehen maila:** Arrasate C 0 - Gros F 4
- **Hirugarren maila:** Puerta/7 4 - Arrasate D 0

**ERRUGBIA**
- **Seniorrak:** Gaztedi 27 - Arrasate 29
- **Gazteak:** Elorrio 25 - Arrasate 7
- **Kadeteak:** Kakarraldo 5 - Arrasate 31

## Jokatzekoak

**FUTBOLA**
- **Lehen gazteak:** Mondra - Segura, zapatuan 15:45ean.

domekan
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate - Real Sociedad, 11:30ean
- **Lehen erregionala, neskak:** Mondra - Aurrera de Vitoria, 15:45ean

**ESKUBALOIA**

Iturripen, zapatuan
- **Seniorrak:** Arrasate - Ormaiztegi, 12:00etan
- **Kadeteak:** Arrasate - Donibane, 10:15ean

**SASKIBALOIA**
- **Kadete neskak:** Kenci Arrasate - La Salle, zapatuan, 10:15ean

**ERRUGBIA**
- **Infantilak:** Arrasate - Eibar, zapatuan, 10:00etan

**XAKEA**

zapatuan, 16:00etan
- **Preferentea:** Arrasate B - Urnieta
- **Hirugarren maila:** Arrasate D -

# Udaberri sarian bikain hasi dira herrikoak

Asteburuan hasi zuten Udaberri saria herriko pilotariek eta lehen mailako gazteek galdu egin zuten arren, beste bi bikoteek irabazi egin zituzten txapelketako lehenengo norgehiagokak. Gipuzkoako taldeen artean jokatzen da Udaberri saria eta lehen mailako kadeteek, Zuazuak eta Agirrek, 9-22 irabazi zuten Hernaniren aurka. 7-1 galtzen hasi ziren, baina mondragoetarrek euren pilota atera zutenean, nagusi izan ziren kantxan. Zuazuak, esaterako, 7 tanto egin zituen sakez.



**Unanue, Ruiz, Nagore eta Errandonea Uarkapen izan ziren eguaztenean.**

Bigarren mailako kadeteek, Jimenez II.a-Arroiabek, 20-22 irabazi zuten Urnietaren aurka. Partida gogorra izan zen eta emaitzak azaltzen duen bezala, markagailu estua ere. Azkenean, ordea, mondragoetarrak nagusitu ziren.

Kale lehen mailako gazteek egin zuten: Uribarren eta Jimenezek 22-8 galdu zuten Aizarnazabalen aurka.

Bigarren kanporaketa domekan jokatuko dute Uarkapen, 10:00etatik aurrera.

Lehen mailako kadeteek Tolosako Aurrera Saiaz taldeko pilotarien aurka jokatuko dute. Bigarren mailako kadeteek Hernaniren aurka eta gazte mailakoek, ostera, Azkoitiren aurka. Nagusiek Tolosan izango dute hitzordua.

Udaberri txapelketaz gain, Euskal Ligako partida ere jokatuko da domekan Uarkapen. Zugarralde taldeko pilotarien aurka arituko dira Zugasti eta Zuazubiskar. Joan den asteburuan 22-10 galdu zuten Igorreren aurka.

### ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Asegarceko pilotariak Uarkapen izan ziren eguaztenean pilotak aukeratzen. Zapatuan jokatuko dute eskuz binakako txapelketako beste kanporaketa bat. Aurrez aurrez Unanue-Patxi Ruiz eta Nagore-Errandonea arituko dira. Partida 17:30ean hasiko da eta sarrerak erosteko zapatuan, 13:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik aurrera, egongo da aukera. Estelarraz gain, beste partida bat ere jokatuko da: Salaberria-Rai eta Arbizu-Taberna.

# Txapelketa arrakastatsua

Joan den domekan Gipuzkoako judo txapelketa jokatu zen Uarkape pilotalekuan, eta arrakasta handia izan zuen, 200 judokatik gora elkartu ziren-eta; izan ere, Gipuzkoako 40 elkarteko kirolariak egon ziren txapelketan. Ikusle asko ere izan ziren, eta horregatik, Arrasateko judo elkartekoak pozik agertu dira eta eskerrak eman nahi izan dizkiete laguntza eskaini dieten guztiei. Baina, kirolari begira, aipagarriak dira mondragoetarrek lortutako emaitzak: bi txapel eta bigarren eta hirugarren toki bana.




Goizeko saioan, David Arnaiz 17 urte azpikoetan txapeldun izan zen, 81 kilotik beherakoen artean, eta Maddalen Aranegi, juniorretan, txapeldunorde izan zen 60 kilotik beherakoen artean.

Mutilen artean, Carlos Rodriguez ere aritu zen, baina ez zuen zorte handirik izan.

Arratsaldeko saioan Leire Zabalak jantzi zuen txapela 18 urte azpikoen mailan, 57 kilo baino gutxiagokoen artean. Maddalenek seniorretan jokatu zuen arratsaldeko txandan eta hirugarren izan zen podiumean. Zorionak!

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

# Infantilen gorabeherak

Gipuzkoako txapelketarako sailkapena lortzeko aldia amaitu da dagoeneko eta balorazioa egiteko ordua iritsi zaie Arrasate Kirol Proiektuko begiraleei. Euren arabera, herriko neska-mutikoak ondo baino hobeto ibili dira eta «balorazio positiboa egin behar dugu. Hemendik aurrera, udaberriko txapelketei ekingo diegu». Horren arabera, lehen ligaxkan sailkatutako taldeek Gipuzkoako txapelketarako txartela lortzeko aukera dute, «orain arte bezala aritzen badira. Saskibaloiko bi talde ditugu aukera horiekin». Eurekin batera, mutilen bi talde eta nesken hiru ibili dira. Baina, bi talde horiez gain, futbol txapelketan nesken bi talde ibili dira eta mutilen beste bi.



SFX futbol taldea.

**SASKIBALOIA**

Aldi horretan oso maila txukuna erakutsi dute Mikel San Miguelek eta Iban Garridok zuzendutako taldea. San Viatorreko nesken A taldea zuzentzen dute bi mutilek.

Danel Aiastuik eta Iker Errastik, bestalde, mutilen saskibaloi taldea zuzentzen dute eta txapeldunak izan dira. Hori dela eta, martxoa aldera Debabarreneko txapeldunen aurka jokatuko dute, Gipuzkoako txapelketa jokatzeko txartela lortzeko asmoz.

**FUTBOLA**

Futbolean halako arrakastarik ez da lortu, baina nahiko txukun ibili dira. La Merced ikastetxeko mutilen taldea finalaurrekoetara iritsi zen, baina kanporatu egin zuten. Hala ere, «Aitor Laskurainek zuzentzen dituen mutikoek liga txapelketa polita egin dute».

Nesketan, bai San Frantzisko Xabierko eta baita La Mercedeko taldeek sasoitsu amaitu dute txapelketa eta irrikaz daude Udaberri txapelketari ekiteko.

## Asteburuko hitzorduak — Urtarrilak 27, zapatua

**AURREKIROLA (BENJAMINAK)**
**SASKIBALOIA**

*Gazteluondon*

| | |
|---|---|
| 09:45 | SFX E - Musakola |
| | SFX A - La Merced B |
| 10:30 | SFX C - Aramaio |
| | La Merced A - S. Viator B |
| 11:30 | SFX B - SFX D |
| | Erguin - SFX U |
| 12:15 | SFX St - S. Viator A |

**MULTIKIROLA (ALEBINAK)**
**ARETO FUTBOLA**

*Iturripen*

**NESKAK**

| | |
|---|---|
| 10:15 | Erguin - SFX U |

**MUTILAK**

*Iturripen*

| | |
|---|---|
| 09:30 | S. Viator B - SFX U |
| 11:15 | Erguin - La Merced |
| 12:00 | SFX B - Aramaio |

*Musakolan*

| | |
|---|---|
| 10:00 | SFX A 2 - Musakola |
| 10:45 | S. Viator A - SFX A 1 |

**7KO FUTBOLA (ALEBINAK)**

*Zapatuan*

*Musakolan*

| | |
|---|---|
| 15:00 | Indo Mirvat - Joma |

*Domekan*

*Atxabalpen*

| | |
|---|---|
| 09:00 | Erguin-S. Viator - Canas Esteban |

**FUTBOLA**

**NESKAK**

*Atxabalpen*

La Merced - M. Lagundia

**RUGBYA**

*Garagartzan*

| | |
|---|---|
| 10.00 | Arrasate - Eibar |

PEPA BOJO (PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA)

# «Harreman erasotzailea gailentzen da gure gizartean»

**Eguen honetan hasi da Arrasateko Emakume Sailak bultzatutako komunikaziorako eta harremanetarako baliabideak lantzeko ikastaroa. Pepa Bojo psikologo eta sexologoak emango du. Hiru urtez eman ditu Mondragoen antzeko ikastaroak, eta orain arteko erantzun ona izatea espero dute antolatzaileek.**



**— Zer landuko da ikastaroan?**

— Helburua da gu geu izaten ikastea eta, ondorioz, garen bezala adieraztea. Harreman motak aztertuko dira, besteari entzuten ikasiko da eta egoera zailetan -haserrealdiak, kritikak…- zelan komunikatu landuko da.

**— Zenbat harreman mota dago?**

— Alde batetik, besteen aurrean sentitzen duena adierazteko gai ez dena; beste ertzean, jarrera erasotzailea. Erdian, aldiz, jarraitu beharko genukeen portaera, ideala, alegia.

**— Gaurko gizartean, zein harreman mota gailentzen da?**

— Erasotzailea. Gure gizartea oso lehiakorra da, eta, akaso horrek bultzatuta, askotan lagun hurkoa zapaldu egiten dugu. Portaera hori sarri ikusten da, baita gazteengan ere, erasotzen ikasi egiten delako. Badago baita aurpegi asko dituen jendea ere, lanean modu batera eta etxean bestera agertzen dena. Baina, horrela jokatzen duenak ez du derrigor autoestimu altuagoa; alderantziz, emozioak plazaratzeko zailtasunak ditu.

**— Autoestimuak zenbaterainoko garrantzia du harremanetan?**

— Autoestimu egokia duenak bere burua errespetatuko du; hortaz, egoki jokatuko du, besteak zapaldu barik. Autoestimu onarekin norberak bere izaera sendotzen du eta zailagoa da pertsona horri eraso egitea; hori ikustean, autoestimua bera hobetu egiten da.

**— Alde handia dago gizonezkoen eta emakumezkoen komunikazio moduan?**

— Ehuneko besteak kontuan hartuz, gizonezkoak erasotzaileagoak izaten dira harremanetan; emakumeok, aldiz, jarrera pasiboa izaten dute, kezkak eta esan beharrekoak eurendako gordetzekoa. Hori berehala sumatzen da: ahotsaren tonuan, esaten denean eta baita esaten ez denean ere.

**— Emaizkiguzu aholku batzuk…**

— Gure burua aztertu behar dugu eta zertan huts egiten dugun antzeman. Hori zergatik gertatzen zaigun pentsatu behar dugu; jeneralean, bestearen erreakzioaren beldurra izaten da arazoa. Beste aholku bat: asaldatuta gaudenean, zerbait esan aurretik, arnasa hartu eta ondo pentsatu. Sentitzen duguna adierazi behar dugu, modu onean; eta ez isilpean gorde.

**«Gure gizartea oso lehiakorra da, eta, akaso horrek bultzatuta, askotan lagun hurkoa zapaldu egiten dugu»**

## aste gazte

**■ DIRU LAGUNTZAK**

• Europa eta Asiako hainbat eskolatan gaztelaniako irakasle bisitarientdako laguntzak, esperientziadun irakasleei zuzenduta. Epea: urtarrilak 31, otsailak 13.

• Zumarraga eta Urretxuko hizkuntzaren eta ondarearen inguruko ikerketa egiteko laguntza, Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartearen eskutik. Epea: otsailak 28.

• ICEXek atzerrian dituen Merkataritza eta Ekonomia bulegoetan praktikaldiak egiteko beka programa. Epea: otsailak 28.

**■ LANA**

• Irungo Udalak euskara teknikaria behar du. Epea: urtarrilak 31.

• Herri Kontuen Euskal Epaitegirako letratua, informatika laguntzailea eta gidaria behar dira. Epea: otsailak 1.

**■ LEHIAKETAK**

• AED Elkarteak XIV. Arrasate Lehiaketa antolatu du, ipuina, poesia, bertso paperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati erreportajea modalitateetan. Epea: otsailak 5.

**■ IKASTAROAK**

• Ekin Emakume Elkarteak eskulanak eta areto dantzen ikastaroak antolatu ditu, martitzenero bata eta eguaztenero bestea.

• Aerobikeko irakasle titulua ateratzeko ikastaroa Elgetan, Debagoieneko Kirol Zerbitzuen eskutik. Zapatu eta domeketan izango da ikastaroa. Epea: otsailak 5.

**■ ESKI IRTEERAK**

• Besaide Mendizale Elkarteak Formigalerako eski irteerak antolatu ditu, urtarrilean hasi eta martxoa arteko asteburuetarako.

**Argibideak:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**☎ 943 77 00 65**

# Bi arrasatear, kantarien 'Munduko Kopa'n

Bihar, zapatua, Donostiako Orfeoiak hitzordu garrantzitsua du: Giuseppe Verdiren *Requiema* abestuko dute, Berlinen, hango orkestra filarmonikoarekin. Eta Goikobaluko bi kidek parte hartuko dute: Juan Bautista Agirre eta Eugenio Etxebeste Berlinen daude astelehenetik. Verdiren heriotzaren mendeurrena ospatzen ari dira Berlinen.



1973an Orfeoiarekin joan ziren bi mondragoetar eta bi bergarar.

### SINESGAITZA

Orfeoiko zuzendariak esan duenez, «orfeoiarendako Berlinen abestea futbol talde batendako Munduko Kopa jokatzea bezala da». Juan Bautista Agirrek «sinesgaitza» bezala deskribatu du aukera hau.

Arrasatearren eta donostiarren arteko elkarlana aspaldetik dator. Jende faltan dagoenean, Mondragoera deitzen du orfeoiak. 1973an izan ziren lehenengoz mondragoetar kantariak Berlinen: Karmelo Heriz, eta Pedro Zumelaga.

### PUNTA-PUNTAKOA

1901eko urtarrilaren 27an hil zen Giuseppe Verdi konposatzaile italiarra. Opera aberastu eta eraldatu zuen melodia sortzeko botereaz, gaitasun dramatiko apartaz eta zuhurtasunez.

Donostiako Orfeoiak eta Arrasateko kantariek *Messa de Requiem* (1874) eskainiko dute. Alessandro Manzoni idazlearen ohorez idatzi zuen Verdik. Lehenengo konpasetatik hasita, opera-izaera agerian uzten du *Requiem*ak. *Dies Irae* delako sekuentzia Verdik idatziriko piezarik onenetariko bat da, eta infernuko irudi bat oroitarazten du. *Libera me* delakoa originaltasunez betetako eszena da. Bukaera zirraragarria du *Requiem*ak. Juan Bautista Agirreren ustez, «entzuteko eta abesteko zoragarria da *Requiema*».

## Umeen arazoez kontzientziatuz

«Jendeak argazkiak ikus ditzan nahi dugu, kontura daitezen gu zein ondo bizi garen eta beste lekuetan zelan bizi diren»; gogo horiek bete nahian zabaldu du Gizakien Lurra gobernuz kanpoko erakundeak Monterrongo argazki erakusketa.

### UMEEI LAGUNDU

Enrique Pimulier argazkilariaren lanek Mauritaniako herri bateko eta Errumaniako gazteendako psikiatriko bateko bizipenak islatzen dituzte. Han ikusten dena bat dator Gizakien Lurraren lanarekin: gaixo dauden umeak ekarri nahi dituzte, behar duten tratamendua emateko. «Argazkiak ikusi eta jendea kontzientziatzea nahi dugu, ea gero galdezka etortzen zaigun», diote partaideek. Debagoienean 20 kide daude orain.

## Wenders, zine-kluba zabaltzeko




The Acid House komedia beltza 22an emango da.

Azaroaz geroztik, bueltan dugu zine-kluba, eskaintza komertzialetik kanpo geratzen diren film bikainak erakusten, Amaia antzokian.

Datorren eguenean, otsailak 1, Wim Wenders zuzendari alemaniarraren filma: *Buena Vista Social Club*. Kritikoen esanetan, *Paris-Texas*en egileak albora utzi zuen hemen bere betiko estiloa.

### KUBATAR DOINUAK

Kubara egindako bidaia baten oinarritutako musika dokumentala da. Musikari kubatar ahaztuei omenaldi moduan dago filmatuta: emanaldiak, grabaketak eta eguneroko bizimodua islatzen dira. Datozen asteotan, *La Ducha, Las Confesiones del Doctor Sachs* eta *The Acid House* eskainiko dira. Saio guztiak eguenetan izango dira, 21:30ean.

## Al Andalusen 11. urteurrena

Domekan Al Andalus elkarteak hamaika urte beteko ditu eta, hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur bertan argazki erakusketa bat irekiko dute, 21:30ean, Al Andalus elkarteko liburutegian, *La emigracion andaluza en Cataluña durante los años 60* izenburuarekin. Ondoren, *lunch*a egingo dute.

Zapatuan, 10:30etik aurrera, kopla jaialdia egongo da 10 urte dituen Fanirekin eta Merche Loisekin batera.

Domekan izango da urteurrenaren egun handia. Corazon de Encina elkartea gonbidatu dute ospakizunera eta ongietorria 13:30ean izango da. 14:30ean senidetasun bazkaria egingo dute. 18:00etan elkarteko taldeen ekitaldiak hasiko dira eta elkarte gonbidatuari agurra egingo diote, jaia amaitzeko, 20:30ean

# Aizpa kontuak uhinetan

## Hi bizi hadi Martitzenero 20:00etan



Joana eta Karmele Mancisidor 16 eta 18 urte dituzten bi aizpa mondragoetar dira. Irratian kasualitate hutsez hasi zirela esan digute, baina gutxik pasatzen dute horren ondo mikrofonoa aurrean dutela eta Pituri, Arrasate Irratiko teknikariari, zein abesti jarri behar duen esaten. Izan ere, horixe dute gustuko bi neska gazte hauek: musika. Eta euren saioak, gaztea –eurak bezala–, musikarekin lotutako hainbat kontu lantzen ditu: asteko hitzorduak iragartzen dizkigute eta, horrekin batera, astebururako aukerak ere eskaintzen dizkigute. Tartean, egunkarietan eta beste komunikabideetan aurkitzen dituzten bitxikeriak ere jasotzen dituzte.

**ELKAR EZAGUTZA**

Elkar ondo baino hobeto ezagutzen dute Joana eta Karmele, eta horrek euren saioari izaera berezia ematen dio. «Ez gaituzte lagun askok entzungo, baina gu oso gustura ibiltzen gara; agian, horregatik izango da». Eta sinistu ere egiten dute hori, naturaltasun osoz ibiltzen dira-eta biak uhinetan barrena.

Martitzenero ordu bat lehenago edo iristen dira irratira saioa prestatzeko eta kantuak aukeratzeko. Txukun-txukun kantuen zerrenda teknikariari eman eta mikrofono aurrean esertzen dira. Saioaren izenak dioen bezala, Hi bizi hadi esateko prest izango dituzue, bada, bi aizpak, martitzenero.

## kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Otsailak 2: **Texas Terri & The Stiff Ones + PPM + The Hot Dogs**

Otsailak 3: **Banda Hachis + Descontrol**

**2** sarrera egun bakoitzerako zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

**Izen-deiturak:** ......................

**Tel.:** ............................

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

arrasate **irratia**

FM 107.7

**ASTELEHENA - OSTIRALA**

| | |
|---|---|
| 09:00 | **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.** |
| 09:55 | **Eguneko hitzorduak.** |
| 10:00 | **Igo autobusera I.** |
| 11:00 | **Albistegia.** |
| 11:15 | **Igo autobusera II.** |
| 12:30 | **Agenda, eskelak...** |
| 12:45 | **Albistegi nagusia.** |
| 14:00-18:00 | **Errepika.** |

**ASTELEHENEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Jokoz Kanpo.** |
| 21:00 | **Draxtor.** |
| 22:00 | **In Session.** |

**MARTITZENEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Hi bizi hadi.** |
| 21:00 | **Jakidiplost.** |

**EGUAZTENEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Binilo ordua.** |
| 21:00 | **KK2A.** |

**EGUENEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Ostegun-Ero.** |
| 21:00 | **Arakatzen.** |

**EGUBAKOITZEAN**

| | |
|---|---|
| 20:00 | **Planing Prest.** |
| 21:00 | **Kale Doinuak.** |

**ZAPATUAN**

| | |
|---|---|
| 10:00 | **Bihurrikerietan.** |
| 11:00 | **Musika klasikoa.** |
| 12:00 | **Bi zoro ta zu.** |




GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK
ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78



Santa Ageda eguna datorrela eta, bezperan eskean joaten diren taldeak hasi dira dagoeneko eztarriak berotzen.

Aspaldiko ohitura da hauxe eta Mondragoen ere makina bat talde ibili izan da, eta gaur egunean ere ibiltzen dira, kalerik kale eta baserririk baserri. Argazkian ageri den hauxe da horren adibide. 1965. urtekoa da.

Zutik daudenen artean, ezkerretik hasita, honakoak dira gure abeslariak: Pedro Zumelaga, Luis Maidagan, Jose Ramon Bolinaga "Txori", Esteban Pagoaga, Juan Maria Oregi, Jose Egidazu "Kurri", Felix Ayala "Felico", Iñaki Larrañaga "Sanpru", Sabin Zabala "Mallabi" eta Julio Iriondo. Honen ondoko txistularia, berriz, Vicente Etxebarria da.

Eta makurtuta daudenak hauek dira: Eugenio Resusta "Eugenin", Enrike Maidagan eta Luis Berecibar "Montxon".

*Argazkia eta berriemailea:* *Jose Luis Torres.*

LASAGABASTER
LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




**OPEL CORSA BERRIA.**

BIZITZA LABURREGIA IRUDITZEN ZAIZU KONPROMISOAK HARTZEKO, HORREGATIK UNE ORO APROBETZATZEN DUZU ETA BEHIN BAKARRIK AURKEZTEN DIREN AUKEREI HELTZEN DIEZU. OPEL CORSA BERRIAK ERABAT ASEKO ZAITU: LEKU ZABALAGOA, POTENTZIA HANDIAGOA, SEGURTASUN GEHIAGO, DIBERTIMENDUA ERRUZ. BESTE GUZTIA ZURE ESKU DAGO.

**BIZITZAZ GOSE.**

WWW.NUEVOCORSA.COM

OPEL

**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa z/g • Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn • Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86





# Ongizate sentsazioa.





Ehun nobledun altzariak, kolore lasaigarriekin, sentipenek laztantzen dituzten formez beteta.

Barne-barneko ongizatea. Hau guztia TODOMUEBLE Kabiak eskainitako aholkularitzaren eta bertako profesionalen arretari esker eta, jakina, TODOMUEBLE Kabiak finantzazioan eskaintzen duen formula bikoitzarengatik:

Sei hilabetetan, eskura ordaintzeak dakarren deskontuarekin.

24 hilabetetan, interes barik eta 6. hilabetetik aurrera ordaintzen hasita. Gehien komeni zaizun sistema!





ZERBITZUA KALITATEA
MEJOR
PREZIOA



TODO Mueble DANA ONA Kabía

**Ordutegia: 10:15etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.**
**Zapatuak barne**

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 792 770 • ARRASATE